

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresa errentagarria izateko ezinbestekoa da ahalik eta gutxien ordaintzea. Horretarako, banaketa zein komunikazioa ahalik eta merkeena izan behar da.

- Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?

Hasteko, diskoteka bera izango da produktu nagusia, eta bertan gazteek euskal giro erakargarri eta moderno bizi izango dute. Euskara galtzar dagoen hizkuntza dela kontuan izanda, euskaldunak diskoteka honen sorrera eskertuko dute.

Kokapena estrategikoa izan behar da. Alde zaharrean egon behar da baina beste taberna batzuen ondoan jartzea ekidin behar da, lehia monopolista bat sortu daitezkeelako.

Sarrerak saltzeko online plataforma ezagun baten bidez salduko ditugu eta honetaz gain diskotekako webgune ofizialean ere salduko ditugu. Honek sarrerak modu azkar batean eskuratzeko balioko du.

Horrez gain, garraio zerbitzuari dagokionez, egun kopuru zehatz batean gure hornitzaileei deitu beharko diegu produktuak eskuratu ahal izateko.

Komunikazioari dagokionez, sare sozialen erabilerak asko lagunduko ditu. Instagram eta Tik Tok bereziki izango dira erabiliko ditugunak. Hemen bideoak eta argazkiak igoko ditugu diskotekako giroa erakusten.

Donostiatik kartelak eta panfletoak jarriko ditugu. Gainera, diskoteka irekitzen dugun egunean "Irekiera festa" bat egingo dugu eta festa honetan lehenengo 100 sarrerak merkeagoak saldu egingo ditugu, bederatzi eurotan.